



EFEO-REN 2018KO HAUTESKUNDEETARAKO DEIALDIAREN IRAGARKIA

Bilbo, 2018ko APIRILAREN 16a

ROBERTO ROMERO SOTO jaunak (ondore hauetarako helbidea: Ibarrekolanda kalea 15 BEHEA - 48014 Bilbo), Euskadiko Fisioterapeuten Elkargoko Gobernu Batzarreko idazkariak, honako hau ZIURTATZEN DU:

EFEOk Gobernu Batzarrak, 2018ko apirilaren 16an elkargoaren egoitzan bildurik, eta gai-zerrendako puntu bakarra jorratu ondoren, honako hau erabaki du aho batez:

Gobernu Batzarra eratzeko **hauteskundeak deitzea** elkargoaren estatutuetako 44. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz (2012-04-04ko EHAA) eta legez exijitzen den aurrerapena errespetatuz. Hauteskundeok **2018ko maiatzaren 26an egingo dira**, elkargoaren egoitzan (Ibarrekolanda kalea 15 BEHEA - 48014 Bilbo), **10:00etatik 12:00etara**. Iragarki hau iragarki-taulan, elkargo ofizialaren webgunean eta elkargoaren helbide elektronikoen bidez argitaratuko da. Halaber, honako hau jakinarazten da berariaz:

Boto-emaileen ezaugarriak —EFEOk kide guztiak dira boto-emaile— estatutuen 44.2 artikuluan dago zehaztuta.

Boto-emaileen errolda bat jarri da elkargoaren iragarki-oholean, eta 5 eguneko epea egongo da hari erreklamazioak aurkezteko (epea apirilaren 21ean bukatuko da).

Hautagai-zerrendak NANarekin batera sinatuta eta osorik aurkeztu behar dira, hautagai bakoitzak eskuratu nahi duen kargua adierazita, eta gehienez ere 14 kidek eta gutxienez 6k osatuta egongo dira. Hautagai-zerrendak EFEOn aurkezteko azken eguna 2018ko apirilaren 24a izango da. Hautagaietako inor ezin da kargu baterako baino gehiagorako aurkeztu, ezta hautagai-zerrenda batean baino gehiagotan ere; horrez gain, hautagaiek gutxienez urtebeteko antzintasuna izan behar dute EFEOn, eta elkargoaren kuotak ordainduta eduki.

Postaz ere eman daiteke botoa; zigilu-marka jartzeko azken eguna 2018ko maiatzaren 23a izango da.